



BARREN
TOKIKOM

Dislexia bistaratzeko batu dira

Debararreneko Dislexia Elkartea





LACUNAK
colchoneria textil hogar

Komertzioekin lan egiten dugu
(etxeko ehungintzekin
eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAKI!

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com



**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

**943 743 704
688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aito Agirre Kulturagunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

BARREN

EXPRESS ESKAINTZAK!

**SIEMENS SE23HI60CE
ONTZI-GARBIGAILUA**

799 €

**A
T
G** **D**



- 14 mahai-tresna
- 6 programa
- 3. variedrawer erretilua
- Aqua Stop
- Hatz marken kontrako altzairu herdoilgaitza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**BISITA
GIDATUAK**

Maiatzaren 2tik 6ra

**GOI MAILAKO ZIKLOAK M2
ERDI MAILAKO ZIKLOAK M3,4,5**

*info gehiago gure
webgune eta sare
sozialean*



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"



ArmeriaEskola^x

ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



Libururik ez laguntzarik gabe

Aurtengo Sant Jordi berezia izan da Bartzelonan, liburuak baino, xingorra, eguzkia eta euria izan baitira protagonista. Euskal Herrian guztiz pentsaezina litzateke udaberri betean, eguraldiaren gorabeherak kontuan izanda, liburuen (eta arrosen) postuak babestuko dituen azpiegitura bat ez izatea. Bartzelona, ordea, ez dago prest halakoetarako, ez metroa urak hartzen duen astearte batean ezta Sant Jordi egunean ere. Ondorioa: liburu-denda txikien hondamendia.

Sant Jordi egun baten ostean urteko irabazien herena jaso dezake liburu-denda batek. Espektatiba altuak egun bakarrerako. Espektatiba altuak urtean liburu bakarra erosten duen gizartearen-

tzat (irakurtzen den ala ez baloratzen ez naiz sartuko). Ez da, ordea, espektatiba kontua, baliabide publikoak nora bideratzen diren da gakoa. Ez da nahikoa instituzio publikoek kaleetan liburuen postutxoak baimentzea, azpiegitura duinak eman behar zaizkie behar dituenari. Liburuekin zerikusirik ez duten (eta bost liburu saltzearren liburuaren egunean posturik handienak dituzten) multinazionalak eta liburu-denda txikiek ez dute bultzada berbera behar, ez dituzte baliabide berberak behar. Ez dakit aurtengo Sant Jordi ahaztezina edo ahaztu beharrekoa izango den, baina zerbait ikastea badagokie kataluniarrei. Eskerrak Durangoko Azoka behintzat Landako Gunean egiten den...

Sekulako aje emozionala uzten dit apirilaren 23ak. Sant Jordi Herrialde Katalanetan, liburuaren egun lotsati bat hemen. Ez dakit Bartzelonan bizi izana den edo liburuak nire egunerokotasunean duten figura (gutxi gorabehera) zentrala, baina berezia da kulturari, ezagutzari eta jakin-minari egun bat eskaintzea (ia arrosen zera hori ere ulertzera iritsi naiz, imajinatu).

“Ez da nahikoa instituzio publikoek kaleetan liburuaren postutxoak baimentzea, azpiegitura duinak eman behar zaizkie behar dituenari”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskararen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, losu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



► ASENSIO OTEGIRI GUTUNA

Amasan jaiio zinen, eta 10 urte zenituela gerra ezagutu zenuen. Ez zen gerra zibil bat izan, saldu nahi izan diguten bezala; estatu kolpe militar faxista bat izan zen. Zure aita ihesean ezagutu zenuen, abertzalea zelako. Ezkutuan egon zen, fusilatuko ote zuten beldur. Euskaraz ikasi zenuen errezatzen; gero, faxisten etorrerarekin, erdaraz: "Orain, ez dakit errezatzen ez euskaraz ez erdaraz", esaten zenuen. 20 urterekin Amasa utzi eta Elgoibarren hasi zinen lanean, Sigman, josteko makinen enpresan. Bertako greba orokorrrak... Morkaiko mendizale elkarteko presidente ere izan zinen. Bertan abentura dezente eduki zenituen: ETak ikurrina mendi puntan jarri eta zuek eskursioan goraka, Guardia Zibila ikurrinari tiroka ia kablea moztuko zuten, kanping gasa autobusean eta ia bomba bat prestatzeko zen pelikula... bigarren guda. Semea erbestera, 9 urtez. Bertan jaioko nintzen ni, Baionan, Espainiako Poliziarengandik ihesi. Amak kotxea arrankatzen zuen gu ikastolara eraman baino lehen, eta buelta pare bat ematen zituen auzoan, leher egiten bazuen gu bertan ez harrapatzeko. GALen gairiak ziren. Aita atxilotu, ama atxilotu eta zuek pasa zenuten muga, poliziaren furgoneta batean, ilegalki.

Elgoibarko Udaleko plenoan, torturen aurkako mozioa sartu zuen Herri Batasunak. Bertan zinen zu ere. PNV, PSE eta EEK mozioaren aurka bozkatu zuten. Tortura existitzen ez zela zioten. Zuk hitza hartu zenuen: "Zuek nahi duzuen esango duzue, baina nik nire semearen gorputzean ikusi ditut zigarroen erredurak eta torturen markak, eta hori inork ezin du esan gezurra denik". Isilik gelditu ziren, beti egin duten bezala.

15 urte espetxeetara bidaiatzen pasa genuen gero. Zenbat espetxe eta bizipen.

Gogoan dut aita torturatua ikusi nuenean, ezpaina zatiturik, begia ubel. Gogoan daukat zein amorru sentitu genuen bisitara sartzeko, 10 urte ingururekin, biluzarazi nindutenean, eta zu ere bikuzarazi zintuztenean. Zenbat umilazio, eta guk burua, zutik, harrotasunez.

Joan ziren Ciudad Real, Huesca, Herrera, Alcala... Garazirekin batera azken urtetan Martutene, Navalcarnero, Logroño eta orain gogoratu ezin ditudan, baina buruz ikasi genuen espetheen izenen zerrenda luzea, Berri Txarrak dioen bezala.

Amamak ezin izan zuen semea kalean ikusi. Zer pena eta zer amorru. Baina zuk bai, eta poza ematen dit horrek.

June ere ezagutu zenuen eta bada marka hori ere, ia 96 urterekin. Junek zu hilkutxan ikusitakoan esandakoarekin gelditzen naiz: "Aitxitxa lolo".

Eskerrik asko, Axen! Irabazi arte!

Hodei Otegi Arregi

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

Maiatzak 10, martitzena
19:00etan
Aita Agirreko areto nagusian


Segidan, elkartearen bulegoa
bisitatu eta mokadua egingo dugu.



II. URTEURRENA *Ioseba Arrizabalaga Mendikute*

"Iriarte"

2020ko apirilaren 19an hil zen, 43 urte zituela.



***Beti egongo zara
gure bihotzetan.***

Familiakoak



Gotzon Garateri 'Atsotitzak' liburua ontzen lagundu zioten baserritarrek topaketa egingo dute bihar Elgoibarren

Gotzon Garate Goihartzun (Elgoibar, 1934 - Bilbo 2008) euskal idazle eta hizkuntzalariak 1967an ekin zion baserriz baserri bilketa lanari. Hogeita hamar urteko lanaren ostean, 27.000 atsotitz baino gehiago bildu zituen: euskarazkoak (14.000 baino gehiago), gaztelaniazkoak (>5.000), ingelesezkoak (>4.000) eta latinezko (>3.000) atsotitzak edo errefracuak. BBK Fundazioak 2014an argitaratu zuen liburuaren bigarren argitalpen eguneratua, CD-ROM eta guzti, 30.466 *Atsotitzak* izenpean.

Gotzon Garatek harreman estua izan zuen *Atsotitzak* liburua ontzen lagundu zioten baserritarrekin, eta harreman horri eusteko urtean behin bazkari baten bueltan batzeari ekin zioten duela mende laurden, Gotzon Garate artean bizirik zela. Hura hil ostean ere eutsi diote ohiturari, baina, adinean aurrera doazela-eta, azken topaketa egitea erabaki dute. Garateren sorterrria aukeratu dute horretarako, Elgoibar, eta bihar batuko dira azkenekoz. Hasteko, mezara joango dira 12:00etan. Mezetan eta meza ostean Elgoibarko historiari buruzko hainbat argibide emango ditu Pello Arrietak. Meza bukatutakoan San Bartolome kalera joango dira denak, Gotzonen etxepera, Angel Ugarteburuk idatzitako bertso sorta abestera. Azkenik, Sigma jatetxean bazkalduko dute.



Ludotekarako eta Gaztelekurako adin-tarte berria ezarriko dute Mendaron

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztematika sareak jarritako irizpideak jarraituz hartu du erabakia Mendaroko Udalak. Hala, maiatzetik aurrera, Ludotekan 4 eta 10 urte arteko haurrak ibiliko dira, eta Gaztelekuan, berriz, 11 eta 17 urte artekoak. Urtez-urte ikusi da 11 eta 12 urtekoek gero eta gutxiago erabiltzen dutela Ludoteka zerbitzua, eta ondorioztatu dute adin tarte horretakoek aproposagoak ikusten dituztela eurentzat Gaztelekuan egiten diren ekintzak eta hango lagunartea.



Axen Otegi Sorrondegi

2022ko apirilaren 12an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Izar berri bat piztu da
Euskal Herriko zeru gainean.
Asko maite zaitugu.***

Etxekoak



Ertzaintzak zaintza areagotu du Mendaron azkenaldiko lapurretengatik

Lapurreta asko izaten ari dira aspaldian Mendaron. Aste Santu aurretxoan, apirilaren 4tik 5erako gauean, Herriko Enparantzako garaje komunitarioetan sartu ziren eta dozena bat garajetan egin zituzten lapurretak. Gutxienez zazpi bizikleta ostu zituzten lapurrek, bai eta garajetan aurkitutako kontserbak eta olio eta ardo botilak ere. Baina ez dira horiek izan lapurreta bakarrak. Herriko establezimendu baten eta zenbait etxebizitzatan ere sartu dira lapurrak, eta pazko astean berriro saiatu ziren garajeetan. Horregatik, kezka eta egonezina zabaldu da herrian. Mendaroko Udaletik jakinarazi dute Ertzaintzarekin harreman estuan ari direla, neurriak hartu eta gertakariei jarraipena egiten. Ertzaintzak zaintza areagotu du Mendaron eta zaintza-lanak autoz egiteaz gainera, oinezko patruilak ere badabilta herrian. Udaletik arretaz jokatzeko eskatu diete herritarrei, eta abisua emateko aparteko zerbait ikusiz gero. Era berean, lapurretan egin dietela uste izanez gero, salaketa jartzeko ere eskatu diete herritarrei.

Zaintza lanak edota etxe etxe lan egiten dutenentzako aholkularitza zerbitzua emango dute Lilan

Zaintza lanetan eta etxe etxe lan egiten duten herritarrei zuzendutako aholkularitza zerbitzua jarriko du martxan Elgoibarko Udalak Lila Emakumeen Etxean. Aholkularitza zerbitzuaren bidez, "egoera zaurgarrian dagoen kolektibo hau erdigunean jarri eta euren egoera hobetu" nahi du Udalak, babesa eskainiz. Horretarako, zaintza lanetan diharduten herritarrei orientazioa emango diete lan eskubideei dagokienez, eta baita prestakuntza-beharretan laguntza ere. Bitartekaritza eta aholkularitza eskainiko zaie gizarteratzearen eta laneratzearen arloan, eta laguntza berezia emango zaie enplegarritasun maila txikiagoa eta lan merkatuan sartzeko zailtasun handiagoa duten pertsoneri.

Elgoibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta egongo da aholkularitza zerbitzu hori, hortaz, beharren arabera, zerbitzu desberdinetara bideratuko dituzte erabiltzaileak.

Zainketa aringarrien inguruko hitzaldia, Elgoibarren

Heriotzari buruzko hitzaldi zikloaren barruan, joan zen astelehenean alde zurretiko borondateen inguruko hitzaldia eman zuen Elgoibarren Iñaki Sarelegik, Osakidetza Zainketa Aringarrien Saileko arduradunak, eta 40 bat lagun elkartu ziren hitzaldian. Datorren asterako, berriz, zainketa aringarrien inguruko hitzaldia antolatu dute.

Montse Perez Garcia doktoreak emango du. Bidasoako ospitaleko medikua da, eta duin hitzeko beste aukera posibleen inguruan jardungo da Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:30ean hasita. Interesatuek honako bi bide dituzte hitzaldirako izena emateko: Whatsapp bidez (656 748 391) edo Bihotzetik elkartearen webgune bidez, formularioa beteta.

Debabarreneko gazta azoka bihar, hileko azken zapatuko ferian

Hileko azken zapatuko feria antolatu dute biharko, eta ohi moduan, Lizundia Txabola, Liza-gasar eta Zortziko Ezitia baserrietako produktuek erosi eta dastatzeko aukera egongo da Kalebarren plazan. Eguerdian, ganadu erakusketa ere egingo dute. Baina horrez gain, oraingoan, Debabarreneko gazta azoka ere egingo dute eta ondorengo gaztagileek hartuko dute parte: Egotza (ahuntz gazta. Soraluze), Axeleku (behi gazta. Mallabia), Goienetxe (ardi gazta. Mutriku), Mausitxa (ardi gazta. Elgoibar) eta Sosola (ardi gazta ekologikoa Eibar).

Boluntarioak behar dituzte janari bilketa kanpainarako

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du Elgoibarren maiatzaren 6an eta 7an, Gurutze Gorriarekin eta Udalarekin elkarlanean, eta boluntarioak behar dituzte. Izena emandako lagunekin txandak antolatuko dituzte. Txanda egiteko ordutegiak eta saltokiak boluntario kopuruaren arabera antolatuko dituzte. Janari bilketan boluntario izan nahi duten lagunek hiru modu dituzte aukeran izena emateko: arreta@elgoibar.eus e-postara idatzita, 943 741 050 telefonora hots eginda edota Herritarren Arreta Zerbitzuan-HAZ (Santa Ana 2, behea).

Zaldibarko zabortegeari buruzko hitzaldia, maiatzaren 3an

Zaldibarko zabortegea erori zenetik bi urte pasa ostean, oraindik gauza asko argitu gabe daude, eta horren harira, hitzaldia antolatu du Elgoibarko EHBilduk eguaztenerako, *Zaldibar argitu: bi urte eta gero, zer?* izenburupean. Janire lazkanon eta Ahoztar Zelaieta izango dira hizlariak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etan.

Aranzadik historiaurreko bi hilobiren aztarnak aurkitu ditu Karakaten, estazio megalitikoaren eremutik kanpo


Historiaurreko bi hilobiren aztarnak topatu ditu Aranzadik Karakateko tontorretik gertu, estazio megalitiko moduan izendatua dagoen eremutik kanpo, eta Gortazar eta Otsoldasoro izenak jarri dizkiete. Jesus Tapia Aranzadiko kideak azaldu duenez, bi zista dira topatutakoak; bata, Gortazar izenez bataiatu dutena, txikia, eta bestea, Otsoldasoro izenekoa, Akilar mendixkaren ostean topatu dutena, handiagoa.

Aste Santuko opor egunetan, Aranzadiko kideak eta Elgoibarko eta Soralezeko boluntarioak monumentuan industen jardun dira, eta aztarna ikusgarriak topatu ez duten arren, historiaurreko zenbait pieza txiki ere agertu dira, besteak beste honakoak: landutako suari laska batzuk eta eskuzko errota baten gaineko harria. Aranzadik inbentarioa egitekoa du orain eta ofizialki erregistratuko ditu Plazentzia-Elosua estazio megalitikoan topatu dituzten hemeretzi monumentuekin batera. Horrez gain, ekainaren 19an Aranzadik eta Debegesak estazio megalitiko horren gaineko liburua ere argitaratuko dute, XX.mende hasieratik orain arte aurkitu dituzten aztarnen zehaztasun guztiekin. Iaz bete ziren ehun urte Joxe Migel Barandiaranek eta haren taldeak Muskirutzuko mendilerroan ikerketak hasi zituztenetik.



Karakaten eraiki nahi duten zentral eolikoari buruzko hitzaldia antolatu du Karakate Bizirik-Elgoibar taldeak

Karakate mendi gainean eraiki nahi duten zentral eolikoari aurre egiteko sortu duten Karakate Bizirik-Elgoibar taldeak hitzaldi bat antolatu du maiatzaren 4rako gaia jendarteratu, informazioa zabaldu eta gogoeta egiteko helburuarekin. 'Zein dira horrelako zentral eolikoek sortzen dituzten arazoak? Badago ordezko alternatibarik? galderari erantzungo diote eta horretarako bi lagun gonbidatu dituzte: Oier Etxebarria Goiener kooperatibakoa eta Iñigo Lezea Arabako Mendiak Aske taldekoka. Autokontsumo partekatua eta Energia Komunitateak egungo ereduaren alternatiba izan daitezkeela azalduko du Goiener Taldeko Oier Etxebarria eta Karakaten egin asmo duten instalazioaren antzekoek zein inpaktu izaten duten kontatuko du Lezeak, bai eta proiektu horiek gauzatu nahi dituzten enpresen interesak zeintzuk diren ere. Hitzaldia Kultur Etxeko gelan izango da, maiatzaren 4an (eguztzena), 19:00etan hasita.



'Elikadura nahasmenduak eta lodifobia' hitzaldia, Elgoibarren

Elikadura nahasmenduak eta lodifobia izenburuko hitzaldia emango du Andrea Osoro psikologo eta nutrizioan adituak gaur, Elgoibarren, Lilan. Lodifobiak autoestimuan, norbere irudian eta elikadura jokabidean duen eraginaz jardungo da Osoro. Tailer tekniko-praktikoa izango da, gaztelaniaz. Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Emakumeen Etxeak antolatu dute hitzaldia, Foru Aldundiaren laguntzarekin. 18:00etan hasiko da.

Maiatzaren 12an egingo du banaketa Errigorak Elgoibarren, eta 13an, Mendaron

Azkeneko kanpainaren balorazio oso ona egin du Errigorak, eskaria inoizko handiena izan delako. 10.000 etxe edo desentsatara iritsiko dira aurten, iaz baino %20 gehiagora. Guztira, 143.000 litro olio banatuko dituzte (iaz baino %35 gehiago), eta 271.000 kontserba ontzi eta 41.000 pakete (iaz baino %15 gehiago). Errigoratik jakinarazi dute banaketa datorren astean egingo dutela gurean. Maiatzaren 12an jaso beharko dira produktuak, Elgoibarren, Kultur Etxeko sotoan, 15:00etatik 18:00ak bitartean, eta maiatzaren 13an, Mendaron, 16:00etatik 18:00etara, jubilatuen ondoko lokalean.

Udaberriko merkataritza kanpaina abiatu du Mendaroko Udalak

Herriko merkataritza sustatzeko kanpaina abiatu du Mendaroko Udalak, 2.500 euroekin. Guztira hogeitiki saltoki atxiki dira kanpainara: Roteta, Coviran, ArtFruit, Morroskillo, Itxasertz, Perosanz, Puxika, Farmazia, Anton, M^aAsun, Saint Gerons, Leire, Ltximak, Lasaitze, Ederki, Nahia, Nora, Euskonatura, Olatz ileapaindegia eta June galletiak. Maiatzaren 19ra arte, denda horietan 10 euro edo gehiagoko erosketak egiten dituztenek zozketa txartel bat jasoko dute erosketa bakoitzeko, eta denen artean hiru saski zozkatuko ditu Udalak. Saskiek 100 euroko balioa izango dute eta produktuak Mendaroko establezimenduetan erositakoak izango dira. Sariak arreata zerbitzuan jasoko dira, tiketa aurkeztuta, maiatzak 30a baino lehen. Bestela, ordezkorentzako izango da (ekainaren 6a artekoa izango du aurkezteko).

Ticket Bai sistemaren kontra agertu dira dendariak

Azarorako derrigorrezkoa izango da Ticket Bai, negozioen fakturazioa zaintzeko sistema, eta haren kontra egin du Gipuzkoako Merkataritza Elkar-teak (Dendartean). Dendartean elkartean bildutako Gipuzkoako 2.200 merkataritza txikiak, tartean Txankakuakoek, ohartarazi dute Ticket Bai sistema ezin dela martxan jarri Foru Aldundiak ezarri dituen "epe eta prozedurekin": "Saltoki txikien modernizazioa beharrezkoa dela sinetsita, eta Aldundia prozesu honetan laguntzen ari zaigula onartuta eta eskertuta, ikusten dugu ez dagoela benetako aukerarik Ticket Bai sistema ezarri nahi den garai eta prozeduren bidez ezartzeko, Gipuzkoako saltoki txikiengan kalte handia eragin gabe. Guztiz beharrezkoa ez den zerbitzu, ikuspegi fiskaletik nahiz sozialetik".

Horrez gain, esan dute ez dagoela iruzur fiskalik sistema ezartzeko "urgentzia" justifikatzen duenik. Dendarteanekoen iritziz, Ticket Bai sistema ezartzeak ez dakar zailtasun bera makroenpresa, mikroenpresa edo denda txikiarentzat, eta, hortaz, kasuaren arabera ezarri beharko litzateke: "Merkataritza txikian, langile-baliabide gutxiarekin, adin aurreratuekin, esperientzia eta ezagutza digital eta informatiko urriekin eta baliabide ekonomiko gutxiarekin egin behar diete aurre Ticket Bai-ri". Sistema berriak gastuak handitzea eta negozioa kontrolik gabe uztea ekarriko duela esan dute.

Etxean energia berriztagarriak jartzeko tailerra egingo dute maiatzaren 3an

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, Energia Argitu programaren baitan, etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko aukeren inguruan informatzeko tailerra antolatu du, maiatzaren 3an, Aita Agirre Kulturgunean, 18:00etan. Izena emateko epea gaur amaituko da, 18:00etan. 605 757 687 telefonora deitu edo argitu@gipuzkoa.eus helbidera idatzi daiteke.

Aniztasun funtzionala duten nerabe eta gazteentzako saioak

Elgoibar mugimenduan ekimenaren barruan, aniztasun funtzionala duten nerabe eta gazteentzako mugimendu eta sormen-saioak antolatu dituzte Elgoibarren BASH taldeak eta Udalak elkarlanean. Ekimen honek joan den otsailan Elgoibarren egin zuten Gipuzkoa dantzaren saioan dauka jatorria. Maiatzaren 8an egingo dute lehen saioa, eta hilean behin egingo dituzte aurrerantzean: domeketan, 17:30etik 19:30era bitartean. Saio horietan sormena eta askatasuna bultzatuko dituzte dantzaren eta musikaren laguntzarekin. Antolatzailerak aurreratu dute bederatzi inteligentzia multiploak landuko dituztela eta pertsona ahalduntzea eta ondo pasatzea izango dituztela helburu nagusiak.

Uztargi tabernak irabazi du Mendaroko pintxo lehiaketa

Epaimahaiaren saria eta herritarrek emandakoa eskuratu zituen Uztargiko pintxoak Mendaroko Udalak antolatutako X. pintxo lehiaketan. Lau tabernak parte hartu zuten: Aitz Beltzek, Ormolak, Lagun Betikoak eta Uztargik. Pintxorik onena aukeratu zuten herritarren artean 50 euroko hiru erosketa bono zozkatu zituen Udalak eta Enekoitz Zubiaurrek, Leire Godoyk eta Jose Maria Jimenok eskuratu zituzten.

Zapatuetako hileta elizkizunen ordutegia aldatu dute

Zapatuetan ospatuko diren hilaketa-elizkizunak 17:30ean izango dira aurrerantzean Elgoibarren. Hala jakinarazi dute San Bartolome parrokiatik. Gainerako egunetan orain arteko ordutegia mantenduko dute. Joan den astelehenean hileta elizkizunak gorputza bertan dela ospatzen hasita daude Elgoibarren, familiak hala nahi duen kasuetan. Bestalde jakinarazi dute Gurutze Santuaren elizkizuna, urteetan Azkue auzoan ospatzen dena, parrokiaren egingo dutela aurten ere, domekan, 11:00etan.



Naia Aizpurua, taldekideekin. Ezkerretik eskuinera: Uxue Morales, Natalia Artetxe, Julen Leturiondo, Angello Eloizaga, Naia Aizpurua bera eta Ander Zelai.

▶ NAIA AIZPURUA

GIDOILARIA

Ikus-entzunezko Gradua egitea aukeratu zuen Mondragon Unibertsitatean eta Gradu Amaierako Lana egiten dihardu orain. Karrerako hirugarren mailan 'Deia' dokumentala sortu zuen beste hiru lagunekin batera eta bi sari eskuratu zituzten Huhezinema jaialdian. Haren atzetik etorri zen gero, 'Hurrengo geltokia' film laburra, beste bost lagunekin batera sortutako lana, aurtan, Laburbiran, euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntza eta hedapenerako zirkuitoan, eman dutena. Huhezineman ere saritu dute lana, eta saria eta publikoak egin dien harrera bultzada zaizkie orain beste proiektu berri bati ekiteko. Hasita daude lanean, "ilusioz gainezka".

- AINARA ARGOTIA -

"Jendeari eskatuko nioke laguntzeko sortzaile gazteei ere"

♦ **'Deia' dokumentala izan zen zure/zuen estreinako lan publikoa. Huhezinema jaialdian bi sari eskuratu zenituzten. Ez da hasiera txarra.**

Eskolarako lana izan zen. Eskatu zigtuen dokumentala egiteko eta bururatu zitzaidan drogei buruzko zerbait kontatzea, azken batean, hemen, eta bereziki gure eskualdean, min handia eragin zutelako drogek, nahiz eta gure adinekook ezer gutxi dakigun gure gurasoen belaunaldikoek-eta sufritu zutenaz. Taldekideei proposatu nien, gustatu zitzaizen eta hala hasi ginen dokumentazioa biltzen.

♦ **53 urteko gizonetzko bat da protagonista, heroinomanoa eta toxikomanoa izandakoa. Urteetan isildutako gaia au-**

keratu zenuten zuen estreinako lanerako. Ausartak bazarete behintzat.

Bai, Aitor Txopitea eibartarra da protagonista. Aitaren betiko laguna da Aitor. Sufritu du latz, baina bizirik irten da, eta gaur egun aho-bizarrik gabe hitz egiten du iraganaz. Aho zabalik egon nintzaion entzuten eta apuntez beteta itzuli nintzen etxera. 'Badaukagu dokumentala', esan nien taldekideei. Lagun batek bazuen heroinomanoa izandako beste ezagun bat, baina Aitorrek ez bezala, hark ez zuen publiko egin nahi bere kasua, eta egin genezakeen arren irakasleak bakarrik ikusteko zerbait, erabaki genuen Aitorren istorioarekin bakarrik egitea aurrera, bazuelako bere horretan nahikoa indar

eta pena ematen zigulako halako testigantza bat ez erakustek. Gehienez 15 minutuko lana eskatu ziguten eskolan, eta asko laburtu behar izan genuen, baina oso-oso gustura gelditu ginen emaitzarekin. Barruak nahastu zizkidan Aitorren kontakizunak. Oso eskertua gatzazkio emandako testigantzagatik.

♦ **Non ikus daiteke?**

Dokumentala Huhezineman erakutsi genuen, baina ezkutuan daukagu orain. Izan ere, artxiboko irudiak eta musika ere erabili genuen gure grabazioa janzteko, beti ere, jakina, sortzaileen euren baimenarekin, baina baldintza batekin: irabazi asmorik gabe erabiltzea.

◆ Errealitate gordin bat kontatuzetik fikzioa egitera pasatu zinen gero. Nolatan?

Hirugarren mailan, film labur bate-rako gidoia idazteko eskatu ziguten, aurrez esanda, beharbada, ikasturte amaieran grabatu egin beharko genuela. Sekula ez nuen aurrez fikziorik egin, baina lagun batek behin kontatutako istorio batekin akordatu nintzen eta huraxe idatzi nuen, niretik pasata. 4.5 ikasle gara eta istorio bana idatzi genuen, eta horietatik hamar aukeratu zituzten irakasleek. Sei taldetan banatu gintuzten eta hamar horietako gidoi bat grabatzeko eskatu ziguten gero. Gure taldean nirea aukeratu genuen.

◆ Laburbiran, euskarazko film laburren zirkuitoan, ikusi ahal izan da. Zein du gaia?

Monotoniari egindako kritika da. 30 bat urteko gizonezko baten bizitza kontatzen du, bizitza aspergarri bat. Egun batean, baina, gauza bat gertatuko zaio. Beste bi pertsonaia ere badaude, baina mutua da filma. Hala irten zitzaidan; protagonistaren bakardade absolutu hura erakusteko ez nuen hitzen beharrik sentitu. Irakasleak ohartarazi zigun erronka handia izango zitzaiagula hitzik erabili gabe istorio bat kontatzea, gaur egun oso ohitua gaudelako estimuluetara, baina esan zigun, era berean, lortuz gero oso interesgarria izan zitekeela. Eta arriskuak geure eginda, aurrera egin genuen. Jakina, hitzik izan ez arren, soinua badu, eta azpimarratu nahi nuke soinua editoreak egin duen lan izugarria. Esan behar dut, bestalde, hasierako gidoiatik azkenekora salto handia dagoela, pandemiak moldatu beharra ekarri zuelako.

◆ Zertan eragin zizuen ba?

Eszenatokiak aldatu behar izan genituen, eta gauzak kontatzeko modua ere bai. Istorio osoa tren batean gertatzen zen, baina pandemia bete-betean grabatu behar izan genuenez, eta musukorik gabe grabatu nahi genuenez, kanpora eraman behar izan genuen, geltokira. Hortik datorkio izena: 'Hurrengo geltokia'

◆ Nolakoa izan zen grabazio prozesua?

Sei lagun gara taldean eta nork bere rola hartu zuen. Ni gidoiari eta zuzendari lanetan jardun naiz. Bost egun iraun zituen grabazioak, baina aurre-produkzioan ordu asko eman genituen eta lotuta geneukan dena. Hala ere, dena zen berria guretzat eta aurrekontu oso apala geneukan: 200 euro, unibertsitateak emandakoa. Baldintza bi ere bete behar genituen: 30 minutuz azpiko lana izan behar zen eta aktoreak profesionalak izan behar ziren.

◆ Eta nola egiten da hori 200 euroekin?

Erraza ez da. Babesle bila hasi ginen eta guk uste baino erantzun hobea izan genuen. Batzuek dirua eman ziguten, eta besteek euren produktuekin lagundu zituzten. Laguna dudak erizain batek egin ziz-

gigun PCR probak ere. Oso lotuta geneukanean dena, aktoreak lotzeari ekin genion. Nire buruan argi neukan nolako itxura izan behar zuten protagonistek eta Euskal Aktoreen Batasuneko perfilak ikusita aukeratu genituen hiru. Jarri ginen haiekin harremanetan, ohartarazi genien dirurik ez geneukala baina saiatuko ginela dirulaguntzak lortzen gerora ordaintzeko, pasatu genien gidoi irakurtzeko eta hirutik bik onartu zuten. Estrak ere lotu genituen, lagunak-eta. Nire ama, esaterako, eskale papelean jarri nuen, eta familiako lagun edadetu bat Argantzoneraino eraman nuen, geltokiko sekuentzia baterako. Kapritxo bat!

◆ Nola oroitzen dituzu grabazio egunak?

Bost egun izan ziren, oso beteak. Egin genuen barre, egin genuen negar... Nik ez nekien zer zen film labur bat zuzen-





“Ekuadorko jaialdi baterako aukeratu dute gure film laburra”

tzea, eta lehenengo eguna bereziki oso gogorra izan zen. Denbora ere mugatua geneukan: bost egun. Grabazio egunak kaos bat izan ziren, baina, aldi berean, oso ondo pasatu genuen.

◆ **Lokalizazioez ari zarela kapritxoak ere bete zenituztela aipatu duzu. Adibidez?**

Bai, diruz larri ibili arren, Argantzoneraino joan ginen grabatzera. Geltokiz geltoki ibili ginen, egoki zitzaigun baten bila, eta aukeratu genituen hiru bat, gure bueltakoak, baina joan ginen tutorearengana gure aukerekin eta berehala esan zigun ez zuela haietako bakar bat ikusten guk kontatu nahi genuen istoriorako; dotoreegiak zirela. Argantzongoa proposatu zigun eta joan ginen haraino. Beste gastu bat! Kapritxo bat.

◆ **30 bat minutuko lana grabatu zenuen, baina erdira ekarrita eman duzue argitara.**

Bai, gutxiago gehiago da batzuetan. Film laburra izateko baldintza da lanak ezin duela 30 minutu baino gehiago izan eta gure lehenengo bertsioak horixe zuen. Tutoreak esan zigun, baina, erdira ekartzeko, sobrako asko geneukalako. Arrazoia zuen. Eta halaxe jausi zen nire amaren sekuentzia, esaterako. Goizeko 6:00retarako eraman nuen grabatzera, eta azkenean, ez da agertzen. Eskerrak nire ama zen!

◆ **Ez dira ezer saltzeko garai onenak. Nola ari zarete promozio lanean?**

Uda ostean hasi ginen zine jaialdietara aurkezteko aukerak aztertzen, eta aurkeztu ginen baita ere Foru Aldundiaren *Gazteak auzolanean* programarako eta eman ziguten dirulaguntza bat,

baina baldintza batekin: ezin genuela dirua ordura arteko lana ordaintzeko erabili. Zabalkunderako erabili dugu dirua. Film laburren banatzaile bat kontratatu genuen, Jóvenes realizadores, eta hasi ziren haien mundu osora zabaltzen gure lana, bereziki Europako herrialdeetara eta Latinoamerikara. Erabakigarria izan da hori. Pentsa, Ekuadorko jaialdi baterako aukeratu gaituzte!. Ekitaldi batzuk antolatzeari ere ekin genion, film laburra aurkezteko eta gure berri emateko. Aretoen alokairua ordaindu eta hala joan ginen Azpeitiko Soreasura, Donostiako Contadores antzokira eta Eskoriatzara. Eta gauza batek beste ekarri du. Egia da oso zaila dela antzokira jendea eramatea gurea bezalako lan xume batekin, baina guk bihotza jarri dugu lan honetan eta uste dut hori igartzen dela. Jendeari eskatuko nioke laguntzeko sortzaile gazteei ere. Ni ez naiz Iciar Bollain eta ez dakit *Marixabel* egiten, baina zinemaren etorkizuna ziurtatuko bada, behar da dirua eta behar dira proiektu xumeak babestu.

◆ **Zer izan da Laburbiran sartzea?**

Sekulakoa izan da. Laburbirak badu izen bat eta tradizio bat, eta gainera ordaindu egin digute. Guk dena egin dugu debalde, edo geure poltsikotik dirua jarrita, eta kobratzea gauza handia da. Ikus-entzunezkoen mundu hau

oso prekariora da, eta gaur egun, eskatu ere musutruk eskatzen dira lanak. Eta klaro, behin egin daiteke mesede gisa, baina... Geuk ere ikasi dugu. Sortzaileak behar ditugu denok ere, baina haien lana ez dago ordainduta. Gu hilabete oso batez ibili gara Euskal Herrian herriz herri. Tartean, Elgoibarren ere izan ginen, eta Lazkaoko saioan hizlari aritzeko ere deitu ninduten, Laburbirako lanak zuzendu dituztenen artean gazteena izan naizelako.

◆ **Eta estreinako lan publikoarekin bidea egin duenak, zer espero du aurreragorako?**

Nahi genuke beste bi proiektzio egin, bata, Eibarren, eta bestea, Zarautzen. Martxoan bukaeran izan zen aurtengo Huhezinema eta irudi onenaren saria irabazi genuen. 1.500 eurotan baloratutako materiala alokatzeko dirua eman digute saritzat hurrengo Huhezimarako beste ikus-entzunezko bat aurkezteko eta hasita gaude lanean. [Apirilaren 25erako aurkeztu behar zuten gidoia]. Ez dute denek egiten aurrera, bakarrik aukeratuek, baina ikaragarria litzateke gurea hautatzea.

◆ **Karrera amaituta, zertan aritu nahiko zenuke?**

Ikasketak hasi nituenean esan izan balit norbaitek gaur zinema-munduan arituko nintzela, ez nuen sinistuko. Kazetari lanetan ikusten nuen nire burua, baina hain gustura jardun naiz dokumentalgintzan eta fikzioa egiten, orain ez dudala ezer baztertzen. Dakidana da gidoigintza izugarri gustatzen zaidala adibidez, eta baita zuzendari lana ere, baina ez dudala ezertara mugatu nahi.

CARMEN ANDERSON

GIPUZKOAKO DISLEXIA ELKARTEKO KIDEA

“Dislexiak ikasketa prozesuari eragiten dio, idazteari eta irakurtzeari”



Carmen Anderson Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) kidea da, eta martxoan Elgoibarren izan zen dislexiari buruz hitz egiten, Debabarreneko Dislexia Taldea aurkezteko ekitaldian. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da hau, eta nagusiki Elgoibarren lan egingo badute ere, atek zabalik dituzte bailarako gainerako herrientzat ere.

AINHOA ANDONEGI (DKT)

Dislegiko (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) sortzaileetako bat zara. Zerk eraman zintuen elkarte sortzera?

Dislexia duten bi seme ditut, eta haiekin izandako esperientziek bultzatuta, nire egoera berean zeuden beste guraso batzuekin jarri nintzen harremanetan. Nire esperientziak eta beraienak partekatzen hasi ginen, eta horrek eraman gintuen Gipuzkoako Dislexia Elkarte (Dislegi) sortzera. Ni Zeelanda Berrikoa naiz, baina 22 urte daramatzat Euskal Herrian, eta gaur egun Donostian bizi naiz. Hori dela eta, elkartearen egoitza nagusia Donostian daukagu, baina saiatzen gara Gipuzkoako eskualde guztietara iristen. Orain Elgoibarren sortu dute talde bat Debabarrenean dislexia duten pertsonen laguntzeko eta haien familiak hezteko, ikastetxeekin elkarlanean jarduteko eta azken batean, dislexia ezagutzera emateko. Gipuzkoan sortu den eskualde mailako lehen ordezkari da, baina espero dugu azkena ez izatea. Gu denok boluntarioak gara eta zaila egiten zaigu probintzia osora iristea, beraz, horrelako ordezkariak oso garrantzitsuak dira guretzat.

Talde horrekin elkarlanean, hain zuzen, dislexiari buruzko hitzaldia eman zenuen Elgoibarren. Zer da dislexia?

Hizkuntza prozesatzeko garunak daukan zailtasuna da, eta idazteko zein irakurtzeko gaitasunari eragiten dio. Etimologikoki hizkuntzaren zailtasuna esan nahi du, eta gaur egun, irakurtzean ager daitekeen arazotzat hartzen da, baina ez dauka arrazoi intelektual, kultural edota emozionalekin inongo erlaziorik. Ez zaio interes edo motibazio faltari lotu behar, ezta adimen urritasunari ere. Argi utzi nahi dut ikasketa prozesuari eragiten dion nahasmendua dela dislexia, baina ez dela gaixotasun bat.

Zerk eragiten du dislexia?

Genetikak zerikusia dauka, eta horregatik, elkartera etor-

tzen zaizkigun kideei lehenengo galdetzen dieguna zera da: ea familian aurrekaririk baduten. Eta gehienetan egoten dira aurrekariak, baina askotan diagnostikatu gabeak. Askok esaten digute bere senideren batek ikasteko arazoak zituela, oso nota txarrak ateratzen zituela, baina oso azkarra zela. Argi utzi nahi dut dislexiak ez daukala adimenarekin zerikusirik. Dislexia duten ume asko oso argiak dira, bizkorrak eta irakaslearen galderak berehala erantzuten dituzten horietakoak, ahozko hizkuntza prozesatzeko arazorik ez dutelako. Irakurtzean eta idaztean agertzen dira arazoak. Normalean, dislexia duten pertsonen asko kostatzen zaie irakurtzen ikastea, ez dituzte kontzeptuak ondo prozesatzen, kaligrafia txarra izaten dute, ortografia arazoak... Kontzientzia fonologikoa apur bat murriztuta izaten dute pertsona hauek eta horrek sortzen ditu arazoak, baina bakoitzak bere zailtasunak ditu eta ez die denei modu berean eragiten. Batzuek azkarrago irakurtzen dute besteek baino, kontzeptuak hobeto barneratzen dituzte; beste batzuek azkar irakurtzen dute, baina ez dute ezer ulertzen...

Zein adinetan agertzen da?

Hautzaroan agertu daitezke seinaleak. Esaterako, normalean, beranduago hasten dira hitz egiten, ez dituzte soinuak ondo ahoskatzen, eta silabak jan edo gehitzen dituzte hitzetan... Gauzak izendatzea ere kostatzen zaie, hau da, zerbait deskribatzerakoan hitz zuzena burmuinetik ahora eramatea kostatzen zaie. Gero irakurtzen eta idazten hasten direnean, seinale horiek areagotu egiten dira: motel irakurtzen dute, atzamarrarekin markatzen dute irakurri beharreko letra edo silaba bakoitza, irakurritakoa ez dute barneratzen... Egia da hitz egiten, idazten edo irakurtzen hasten direnean horrelakoak oso ohikoak direla edozein umerengan, baina horrek ez du esan nahi denek dislexia

dutenik. Askotan seinale horiek normalizat jotzen ditugu eta oharkabean pasatzen zaizkigu, normala delako irakurtzen, idazten edo hitz egiten ikasteko prozesuan zailtasunak agertzea; denek ez dute dena lehenengoan ikasten.

Zein da orduan dislexia detektatzeko modua?

Irakaslea izaten da normalean jabetzen lehenengoa. Ordu asko ematen dituzte eskolan eta irakasleak jakiten du hoberen ume bakoitzak zertan daukan zailtasuna. 5-6 urteren bueltan detektatu daiteke dislexia. Ikastetxeek test batzuk dituzte umeei probak egiteko, eta diagnostiko zehatza egiteko balio ez badute ere, dislexia izateko arriskuez ohartarazteko balio dute. Eskolaren papera oso garrantzitsua da dislexia detektatzeko.

Zuzentzen al da dislexia?

Landu egin daiteke, eta eskolaren, familiaren eta logopeda baten laguntzarekin esaterako, asko hobetzen da, baina dislexia ez da zuzentzen inoiz. Ikasi egiten da dislexiarekin bizitzen eta dislexiari izkin egiten. Trikimailuak ikasten dituzte dislexia dutenek eta horrela moldatzen dira ikasketa prozesuan, baina umetan dislexikoa dena, nagusitzean ere halaxe izango da. Baina lanketa zehatz batzuk eginez dislexikoek ere ikasten dute ondo irakurtzen, kontzeptuak barneratzen, idazten... Umetan umeak esponjak direla esaten dugu, eta horrek esan nahi du beren bur-

muinak gauza berriak ikasteko gaitasun handia duela. Baina burmuinaren malgutasun hori 10 urtetik aurrera gutxitzen joaten da; horregatik, garrantzitsua da dislexiaz ahalik eta azkarren jabetzea. Zenbat eta lehenago hasi lanketa horrekin, lehenago ikasiko du irakurtzen, eta horrek ikasketa prozesua erraztuko dio umeari. Eskoletan Berritzegunetik egiten zaizkie umeei probak, eta bestela, alor pribatutik ere egiten dira probak. Oso garrantzitsua da eskoletan dislexia zer den jakitea eta bere ezaugarriak eza-gutzea, ondo bideratu ahal izateko. Familiak normalean ez du ulertzen bere seme edo alabak zergatik dituen hainbeste zailtasun ikaste prozesuan eta eskolara jotzen du. Horregatik oinarrizkoa da eskolaren papera.

Zenbat jenderi eragiten dio dislexiak?

Azken ikerketen arabera, mundu mailako populazioaren %6-15ari eragiten dio. Guk datua biribilduta ematen dugu, eta %10eko portzentajea erabiltzen dugu. Dislexia dutenek ahalegin handia egiten dute ikasteko, baina, hala ere, askotan emaitzak ez dira onak izaten eta horrek frustrazio handia eragiten die. Ahalik eta lasterren detektatzea inportantea da, zein egokitzapen behar dituzten jakiteko eta lanak horretara bideratzeko. Beraientzako material egokia prestatzeko asko laguntzen du: orri txuriak, letra beltza tamaina egokian...

Debabarreneko Dislexia Taldea martxan

Gipuzkoako Dislexia Elkartetik sortu dute Debabarreneko Dislexia Elkartea, zenbait familiak zituzten beharrei erantzuteko: "Ikusita hemen inguruan ez zegoela inolako talde edo orientazio zerbitzurik Dislegiko ordezkariekin batu ginen gure beharrak azaltzeko, eta euren proiektua interesgarria iruditu zitzaigunez aukera polita ikusi genuen Debabarrenean taldea sortzeko". Gurasoak dira taldearen sortzaileak, eta hainbat egoeraren aurrean galduta ikusi dute euren burua, nora jo ez zekitela: "Egoera horretan dagoen jendeari laguntzea da gure helburua, hau da, dislexiari buruzko informazioa zabaltzea eta gure esperientziak partekatzea, horretarako beharra duen edonorekin". Dislexia ezagutzera ematea da euren oinarrizko funtzioa. Izan ere, nahasmendu honen inguruan oraindik ezjakintasun handia dagoela uste dute. Familiak prestatu nahi dituzte, eta ikastetxeekin elkarlanean aritzeko asmoa ere badute, elkarlanean dislexiari ahalik eta zabalkunde handiena emateko. Elkartetik azaldu duten moduan, dislexia duten pertsonen batez ere, ikasketa garaian topatzen dituzte traba eta zailtasun handienak, eta sarritan ez da ulertzen zergatik dituzten zailtasunak irakurtzean, idaztean... "Baina, hala ere, pertsona azkar eta langileak dira, beste ikuspuntu bat dutenak, erresilientzia handikoak... eta euren beharretara egokitutako laguntza txiki bat izanez gero, dir-dir egiten dutenak". Hain zuzen ere, ikasketa prozesuan dauden gazte horien beharrak asetu nahi dituzte taldeko guraso hauek, gizarteak gazte horiek uler ditzan nahi dute, eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dute informazioa zabaltzea. Era berean, gazte horientzako material egokia prestatzeko beharra ere ikusi dute.

Momentuz Elgoibarko kideak daude taldean bakarrik, eta beraien lan esparrua ere Elgoibar izango da nagusiki, baina bailarako gainerako herrientzat ere zabalik dituzte ateak, eta beharra duen edonori laguntzeko prestutasuna erakutsi dute. Beraiekin harremanetan jartzeko dislegidebabarrena@ni.eus helbidera idatzi daiteke.



Elgoibarko musikariak, Maalara

2018an sortu zuten herriko zenbait musikari Elgoibarko Musikarien Elkarte, eta taldea ezagutzera emateko eguna antolatu zuten orain dela bi urterako. Alabaina, pandemia iritsi zen, eta Elgoibarko musikarien eguna ospatu aurretikoan etxeratu gintuzten. Bi urte pasatu dira ordutik, eta egoerak hobera egin duen honetan, Maalako parkea hartuko dute bihar herriko musikariek. Bigarren eskuko azoka egingo dute eguerdi partean musikagintzako materialak trukatzeko, eta gero, elkarrekin bazkalduko dute elkarteko kideek. Arratsaldean, Elgoibarko sei musika taldek kontzertua emango dute.

- AINHOA ANDONEGI -



K-104



Bikustik

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko dio kantuak, eta horixe egingo du bihar Elgoibarrek: kantatu. Elgoibarko Musikarien Elkarteak antolatuta, Maalara irtengo dira herriko musikariak, elkarte aurkeztu eta elkartearen baitan zer egiten duten erakustera: "Gure musika erakusteko irrikitan gaude", esan dute.

2018an sortu zuten Elgoibarko Musikarien Elkarte (EME). Aspaldiko eskaera bati erantzunez, Udalak Pedro Mugurutzako eskoletan musika taldeek entseatzeko lokalak sortu zituen eta horren harira, elkarte bat sortzeko beharra sentitu zuten zenbait musikaririk: "Aurrerapauso handia izan zen lokalak sortzea herriko musikarientzat, eta lokal horiek kudeatzeko eta, bide batez, musikariok elkartu eta Elgoibarko musika eta kulturaren alde lanean segitzeko, elkarte eratzea pentsatu genuen, musikari indibidual bezala funtzionatu beharrean, talde moduan funtzionatzeko". Elkartearen helburu nagusia ere zehaztu zuten: "Elgoibarko musika taldeei eta musikariei laguntzea eta haien lana sustatzea". Elkarlanari ere garrantzia ematen diete, eta arte musikalaren babes eta zabalkuntzarako beste elkarteekin elkarlanean aritzeko asmoa dute. Elkartetik laguntza eman nahi diete, baita ere, musika eskolatik irteten diren gazteei zein euren kabuz instrumentu bat jotzen ikasi duten gazteei ere, musika taldeetan

jarraitzeko aukera izan dezaten. Gaur gaurkoz 48 bazkide ditu elkarteak, eta guztira 20 bat musika proiektu hartzen ditu bere baitan.

MUSIKA OSASUNTSU ELGOIBARREN

Elgoibarko musikagintza osasuntsu dagoela uste dute EMEko kideek. "Jende gaztea musika talde berriak sortzen ari da, eta musika ona egiten, gainera". Garai bateko taldeak ere hartzen ditu EMEk, urteetako eskarmentua dutenak, eta denek bat eginda proiektu berriak sortzea errazagoa dela diote. Pedro Mugurutzako lokalen garrantzia nabarmendu dute: "Behar bat zen musikarientzat. Orain errazagoa da musika taldeak sortzeko pausoa ematea, jakinda entseguetarako lokala eta elkarte bat daudela, euren ilusio eta asmoei babesa emateko". Musika Elgoibarren osasuntsu dagoen arren, kontzertuak emateko zailtasunak daudela adierazi dute: "Taldea hasi dira abesti berriak sortzen, diskoak argitaratzen eta batzuk kontzertuak ematen ere bai, baina, oro har, zaila dago kontzertuak ematea. Agian ekimena eta babes falta dira kontzertuak antolatzen dituztenen artean". Honi lotuta, musikagintzaren esparruan prekariedade handia dagoela nabarmendu dute, eta pandemiak lehen ere zaila zen sektorea are gehiago zaildu duela: "Pandemiak iraun duen urteetan



Eleaners



Jeizy's Tyros

musikaren inguruan mugitzen ziren profesionalek, musikariek, teknikariek oso zail izan dute bizirautea, eta batzuk beste ibilbide bat hartzeko beste erremediorik ez dute izan, musika alde batetara utzita. Poliki-poliki normalizatzen joatea espero dugu, kultura eta musikaren hobebharrez”.

EME EGUNA, BIHAR

Zailtasunak zailtasun, musikarako ilusiorik ez zaie falta Elgoibarko musikariei, eta oholtzara igotzeko gogotsu daude. Koronabirusaren pandemiak kultur ekitaldiak erabat eten zituen hasieran, eta gerora, nolabaiteko ekitaldiak egiteko baimena egon zen arren, badirudi orain berreskuratuko dugula hainbeste itxaron dugun normaltasun egoera. Herrietako kultur agendak bete-beteta datoz, eta Elgoibarren ere ez da ekitaldirik faltako datozen asteburuetan. Bihar, Maalara irtengo dira Elgoibarko musikariak, ezkutuan egiten duten hori jendaurrean erakusteko: “Elgoibarren musika taldeak badaudela erakutsi nahi diegu herritarrei”. Adin eta estilo desberdinetako musikariak igoko dira Maalako oholtzara bihar, eta EME el-

karteko sei musika talderen kontzertuez gozatzeko aukera egongo da. Bikustik, Eleaners, Ellie Jensen, Dani and the Sotos, Jesy's Tyros eta K-104. 18:00etan hasiko dira kontzertuak, eta talde bakoitzak ordu erdiko emanaldia emango du.

Baina EME Eguna ez da kontzertuetara bakarrik mugatuko. 12:00etan musikarekin erlazionatutako materialen bigarren eskuko azoka egingo dute. Erabiltzen ez duten materiala jarriko dute ikusgai, eta erosteko edo trukatzeko aukera egongo da. Azoka irekia da, eta edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. Azokaren ostean, elkarrekin bazkalduko dute.

EME elkarteak, bestalde, garrantzia handia ematen dio musikari lotutako hitzaldiak antolatzeari, iruditzen zaielako EMEko bazkideentzat ez ezik, herriko musikari eta musikazaleentzako ere aberasgarriak direla. Aurten hiru hitzaldi edo masterclass antolatu dituzte: Joseba Irazoki musikariak gitarra jotzeko duen estilo eta teknika bereziaren berri eman zuen eta Freddi Pelaezek grabazio bati norbere etxean nola ekin azaldu zuen. Uda ostean egingo dute hirugarren saioa.



Ellie Jensen



Dani and The Sotos

Galduan eman: Negozioren batean, galtzen irten.
Zenbat da kontua? Eta hainbeste. Bueno, etxuek galduan emango eurak ere, e!

Bihar estreinatuko dituzte buruhandi berriak



Umeek ezagutzen dituzte Tartalo, Mari, Basajaun eta Basandere buruhandiak, azken bi urteetan ospatu ez diren San Bartolome jaien harira antolatu dituzten erakusketetan ikusita, baina pandemiaren ondorioz, buruhandi hauek ez dira oraindik kalera irten. Bihar estreinatuko dituzte. Erraldoiak eta Buruhandiak eta zezenzikletak kalejiran irtengo dira Kalebarren plazatik, 17:30ean, eta lekueder plaza buruhandirik gabeko gunea izango da.

Atxutxiamaika eta Ludotekaren Udaldian izena emateko epea maiatzaren 13an itxiko dute

Atxutxiamaiak eta Udal Ludotekak udaldirako aisia eskaintza prestatu dute Udalaren laguntzaz, eta maiatzaren 13ra arte egongo da izena emateko aukera. HH2tik LH6ra arteko umeentzako



eskaintza prestatu dute, eta besteak beste, goiz pasak, egun osoko irteerak eta beste hainbat ekintza izango dituzte aukeran. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra izango da, 9:30etik 13:00etara, eta bi txanda egongo dira aukeran: lehenengoa ekainaren 27tik uztailaren 8ra, eta bigarrena uztailaren 11tik 22ra. Eskaintza hori osatzeko, txoko osagarriak eskainiko ditu Elgoibarko Izarrak ekainaren 20ko eta uztailaren 25eko astean. Horrez gain, Goiz Txoko zaintza zerbitzua ere egongo da aukeran, 8:00etatik 9:30era.

Udalak dirulaguntzak emango ditu, eta horiek eskatzeko epea maiatzaren 16tik 27ra izango da.

Informazio gehiagorako Elgoibarko Izarrara (943 741746) edo Ludotekara deitu daiteke (943 748 883 edo 656 740 793).

Atxutxiamaiari aitortza egingo diote gaur Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoez *Kuikui* ikuskizuna taularatuko dute gaur, Herriko Antzokian. Bi emanaldi emango dituzte, 17:00etan bata eta 19:00etan bestea. Pailazoez euskarari eutsi nahi izan diote sortu duten azken ikuskizunean. Pailazoez txoriak direla amestu zuten, eta munduari *kuikui* esan zieten. *Kuikui* txorrotxia egingo diote munduari, euskaratik eta euskaraz. Horren harira, herrian euskara sustatzen duen Elgoibarko Izarra elkarteko Atxutxiamaiari aitortza egingo diote, urteetan umeen aisialdia euskaraz eskaini eta umeak euskara hurbiltzeko egindako ahaleginagatik. Sarrera gutxi batzuk eskuragarri daude oraindik www.herrikoantzokia.eus webgunean.

Mendaroko udalekuean izena emateko epea zabalik dago

Udaleku irekiak antolatu ditu Mendaroko Udalak HH3tik LH6 bitarteko haurrentzako, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra izango dira, bi txandatan banatuta, 10:00etatik 13:00etara. Txanda bakarrak 70 euroko prezioa dauka (Mendaron erroldatuta ez daudenenentzat 90 euro) eta bi txanden prezioa 120 eurokoa da (Mendaron erroldatuta ez daudenenentzat, 180 eurokoa). Familia ugarien kasuan, hiru haurrak txanda berdinean apuntatuz gero, hirugarren haurrak 25 euroko deskontua izango du. Plazak mugatuak izango dira. Izenematea, on line Mendaroko web orrian (www.mendaro.eus) dagokion formularioa beteta edota eskuz, ludoteka, liburutegi eta udaletxean egin daiteke, maiatzaren 6a baino lehen.

Herri Urratserako autobusa antolatu dute Mendarotik

Maiatzaren 8an Senperen egingo duten Iparraldeko ikastolen aldeko jairako autobusa antolatu du Mendaroko Arno Guraso Elkarteak. 9:00etan irtengo da autobusa estaziotik, eta 19:00etan izango da handik itzulerakoa. Prezioa hamar eurokoa izango da, eta izena emateko azken eguna ere zehaztu dute: maiatzaren 5a. Izena emateko hiru bide daude: whatsappz (615 624 599), telefonoz (652 764 499) edota emailaz (arnogurasoelkarte@gmail.com). Gutxieneko kopuru bat egongo da.

Jairo Berbelen 'Miscere' film laburra, eguaztenean Herriko Antzokian

Jairo Berbel elgoibartarrak eta Juanma Cano ei-bartarrak zuzendu duten *Miscere* izeneko film laburra emango dute Herriko Antzokian datorren eguaztenean, maiatzaren 4an. Berbelek azaldutakoaren arabera, *Miscere* eta Alex dira laburmetraiko pertsonaia nagusiak eta irratiko elkarrizketa batek harilkatzen du istorioa. Martinen eta Eirenen istorioa kontatuko du *Miscere* uhinetan, Afrikan bizimodua hobea dela-eta hara migratuko duten aita eta alaba baten istorioa. Migratzaileei buruzko istorioa dela dio, baina alde-rantziz kontatua, eta horregatik jarri diote *Miscere* izena protagonistari eta film laburrari berari, gauzei buelta ematea esan nahi baitu *Miscere*k latinez. 21:00etan hasiko da zine emanaldia eta doan izango da.



Trinitateetako danborradan parte hartzeko aukera dago

Atabal elkarteak antolatuta, ekainaren 11n izango da Trinitate Jaietako Nagusien danborrada, 23:00etatik aurrera. Danborradan parte hartzeko interesa dutenek elgoibardanborrada@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Instrumentuen erakustaldia Mendaroko musika eskolan


Mendaroko musika eskolak datorren ikasturterako izena emateko epea zabaldu du, eta horren harira, musika eskola ezagutzeko aukera emango die herritarrei. Musika tresnen erakustaldi didaktikoa egingo dute eta instrumentuak probatzeko aukera ere izango da. Maiatzaren 8ra arte dago izena emateko aukera. Horretarako: iameikutz@gmail.com edo 943 254 275 edo 619 306 493.

Maalara aterako dute gaur Ludoteka

Elgoibarko ludoteka kalera aterako dute gaur arratsaldean, *Ludoteka ibiltaria* ekimenarekin. Margoketa, eskulanak, jolasak... eta beste hainbat ekintza egiteko aukera izango dute HH 5. maila eta LH 6. maila bitarteko haurrek. Maalako parkean izango da, 17:00etatik 19:00etara.

Manga marrazteko tailerra emango du Sara Basurtok

Sara Basurtok (Elgoibar, 2002) manga estiloko pertsonaiak marrazten ikasteko tailerra emango du. Sorkuntza eta Diseinua ikasten ari da, eta ikasketak horien barruan ilustrazioa da espezializazio-etako bat. Anatomian oinarrituko du saioa, eta Japoniako manga komikietako pertsonaiak marrazteko teknika eta koloreak irakatsiko ditu. Maiatzaren 4an izango da saioa, 17:00etatik 20:00etara, Udal Liburutegian.



Cynthia Pazmiñok 'Kolore jasangarriak ehungintzan' tailerra emango du

Cynthia Pazmiño jantzigin-tzako diseinatzaile eta ehungintza artistak tindagai naturalez baliatzen den *Impossible black* izeneko estudioa sortu du kolorearekin jolasteko. Bi saio egingo ditu IMHko museoan, naturak ehungintzari ematen dion eskaintza jasangarria ezagutarazteko. Lehenengo saioa maiatzaren 7an izango da, eta tindagai naturalei buruz hitz egingo du. Ekainaren 4an izango da bigarrena, eta saio horretan indigo eta shibori tekniken erakustaldi praktikoa egingo du. 11:30etik 13:00etara izango dira saioak. Izena emateko: museoa@museoa.eus edo 943 748 456. Pertsona bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu.





Rosario Arrieta Etxaniz

2022ko apirilaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Manuel Fernandez Garcia

2022ko apirilaren 11n hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Miren Opacua Elorza

2022ko apirilaren 25ean hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VI. URTEURRENA

Manuel Rey Quiroga

1937-2016

*Sei urte zure falta somatzen,
zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.*

Etkekoak



XI. URTEURRENA

Edurne Gabilondo Aizpitarte

Beti izango zara gure izar berezia.

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesusek



Unai Loiola gailendu da Idotorbeko bola-joko txapelketan

S an Migel taldeko Unai Loiolak irabazi ditu Elgoibarren jokatu dituzten Gipuzkoako 51. Hiru-txirlo Bola joko txapelketako bi jardunaldiak, azkena joan den zapatuan, Idotorbeko bolatokia. Aiasiako San Migel bolatokia hasi zuten martxoaren amaieran Gipuzkoako 51. Hiru-txirlo Bola joko txapelketa, eta Unai Loiolak irabazi zuen estreinako tiraldi hura. Bolariak Elgoibarrera itzuli ziren berriro ere joan den zapatuan, txapelketako laugarren jardunaldia jokatzera, Idotorbeko bolatokia, baina, oraingoan. Guztira 55 bolarik hartu zuten parte eta estua izan zen lehia, lehen sei sailkatuek txirlo kopuru bera jo baitzuten egin zituzten hiru jaurtaldietan: hiru txirlo. Unai Loiolak eskuratu zuen lehen postua, Iñaki Gojenolak (Asola Berri) bigarrena eta Angel Ibarluzeak hirugarrena. San Migel taldeko hiru bolari sailkatu ziren aurreneko postuetan, Loiolaz eta Ibarluzeaz gainera, Jabier Osoro bosgarren postuan sailkatu baitzen. Taldekako sailkapen nagusian bigarren postuan dago San Migel A taldea, 38 txirlo botata. Azkoitiko Floreaga taldea dago lidertzan, 39 txirlorekin.



Pilar Arriolak irabazi du Izabako Baselizetako gau krosa

Pilar Arriola elgoibartarra gailendu zen, emakumezkoetan, apirilaren 16an Izaban jokatu zuten Baselizetako Krosean. Baselizetako Krosa 6 kilometro inguru dituen gaueko lasterketa bat da, 300 metroko desnibelduna. Izabako Kirol Elkarteak antolatzen du eta urtero Aste Santuko larunbatean ospatzen da. Ilbilbidean zehar, besteak beste, herriaren kanpoaldean dauden Belen edo Idoia izeneko baselizetatik pasatzen da. Emakumezkoetan Pilar Arriola izan zen azkarrena, Almike Argarate eta Arantza Manterolaren aurretik. Gizonezkoetan, berriz, Javier Azkoiti izan zen azkarrena.

Nesken futbola, plazara



Club Deportibo Elgoibar kirol taldeak nesken futbola plazara aterako du gaur, hilak 29, nesken artean futbola sustatzeko helburuarekin. 2011tik 2014ra bitartean jaiotako neskek hartu ahal izango dute parte Kalegoen Plazan egingo duten ekitaldian, 18:00etatik 19:30era bitartean. Neska gazteak parte hartzera animatu ditu C.D. Elgoibarrek.

Sara Eturak Realarekin jokatu du

Sara Etura C.D. Elgoibarko infantil mailako jokalaria deitu du Realak Aste Santuko bi txapelketa jokatzeko. Zumarragan jokaturakoan finalera iritsi ziren, eta azken partida horretan Athletic izan zuten aurkari. Talde txuri urdinak partida galdu egin zuen, penaltietan. Zarautzen, berriz, Jose Angel Iribar txapelketa jokatu zuten 12 taldek, bi multzotan banatuta: Tolosa, Zumaiako, Lagun Onak, Mariño eta Zarautz B izan zituen aurkari Realak bere taldean, eta bost partidetatik lau irabazi eta bat berdindu zituen talde txuri urdinak. Finalerdietan Zarautz A taldearen kontra jokatu zuten eta finala Lagun Onak taldearen kontra. Azkenean, Realak izan zen txapelketa.



Elgoibarko Lagun Taldeako juniorrek ez dute zorterik izan Gipuzkoako Klasikoan

Elgoibarko Lagun Taldeako junior txirrindulariek Gipuzkoako Klasikoan hartu zuten parte aurreko asteburuan, UCI mailako proban. Bi eguneko lasterketa izan zen, eta Deban jokatu zuten lehenengoa, 105 kilometrokoa, eta Donostian bigarregoa, 111,5 kilometrokoa. Bi egunetan, Zumaiako Viveros San Anton taldearekin aritu ziren, baina arazo mekanikoak eta erorikoak tarteko, ezin esan lasterketa ona izan zutenik, lasterketara sasoi betean iritsi ziren arren. Elgoibar Lagun Taldeako Eneko Ortegak arazo mekanikoak izan zituen lehen etapan, eta ez zuen nahi besteko lasterketa egiterik izan. Aritz Esnaolak lortu zuen lasterketa amaitzea, baina Aitor Arranzek ez, eta zapatuan erretiratu egin zenez, domekan ez zuen Donostian irtetarik izan. Egian jokatu zuten domekako lasterketa. Irteera ofiziala eman eta kilometro ingurura, bidea estutzen hasi zen unean, eroriko bat izan zen, eta Elgoibar Lagun Taldeako bi txirrindulariak harrapatu zituen. Jaiki eta bizikleta gainera igo baziren ere, denbora dezente galdu zuten Ortegak eta Esnaolak, eta erretiratu egin zituzten.



Era berean, infantil mailako lasterketa jokatu zuten zapatuan Mendaroko industrialdean, eta Elgoibar Lagun Taldeako Aroa Saezek bigarren egin zuten nesketan, Bizipoz taldeko Iza Ezkibelen atzetik. Mutiletan, berriz, Auritz Ormazabal Zatikerrekoa gailendu zen. Egun berean, benjaminek eta alebinek ere izan zuten aukera industrialdean lasterka aritzeko, hastapeneko ariketa moduan, eta alebinetan, Elgoibar Lagun Taldeako beste txirrindulari batek, hirugarren egin zuten, Enaitz Iraolagoitiak, Aimar Irlizar eta Telmo Urzelai Bizipoz taldekoen atzetik.

Udako Kirol Campuserako izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Udako Kirol Patronatuak Udako Kirol Campusa antolatu du uda sasoirako, 7 eta 15 urte bitarteko hurrei zuzenduta (2007-2015 urte bitartean jaiotakoak). Kirol Campusa ekainaren 27tik uztailearen 22ra arte egingo dute. Izena emateko epea maiatzaren 28ra artekoa izango da, eta interesdunek Olaizaga kiroldegian bertan edo olaizagaharrera@hotmail.es posta elektronikora idatziz eman ahal izango dute izena. Patronatuko bazkideek 106,20 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 116,50 euro.

Sanloko hainbat jokalarik selekzioekin aritu dira Aste Santuan

Sanloko hainbat jokalarik Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioekin jokatu dituzte partidak Aste Santuko oporraldian: Infantil mailako hiru jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin jokatu zuten Hondarribiko HKT txapelketan. Mutilen taldeak txapelketa irabazi egin zuten, eta bertan jokatu zuen Aimar Gurrutxaga Sanloko jokalaria. Emakumezkoen taldea, berriz, txapeldunorde geratu zen, eta talde horretan jokatu zuten Sare Iriondok eta Haizea Urbizuk. Bestalde, Espainiako Selektzio Autonomikoen Txapelketan (CESA) jubencil neskek estatuko txapeldunorde geratu ziren Euskadiko selekzioarekin eta, talde horretan Sanloko Eider Elorza jokalariaik parte hartu zuen. Kadete neskek, berriz, bederatzigarren geratu ziren eta hor Nahia Urbiolak jokatu zuen. Azkenik, infantil mutilek kopako hirugarren postua lortu zuten eta talde horretan Ekin Furnierrek jokatu zuen.



Alcortak Elgoibarren jokatu du Estatuko Lehen Nazional mailara igotzeko fasea

Estatuko Lehen Nazional Mailara igotzeko fasea etxean jokatu du Alcorta Forging Group eskubaloi taldeak, maiatzaren 13tik 15era bitartean, eta Espainiako Eskubaloi Federazioak eguaztenez egin zuen zozketaren ostean badakite zein talderen aurka jokatu duten igoera faseko C sektorea. Gourmet Mar Calasancio (Errioxa), F.H. Sant Vicenc (Katalunia) eta Loyola (Euskal Herria) taldeak izango ditu aurkari etxeko taldeak, Alcorta F.G-ek. Hiru egunetan hiru neurketa jokatu ditu talde bakoitzak, eta lau taldeetatik onena denak bakarrik lortuko du Estatuko Lehen Nazional mailara igotzeko txartela. Alcortak iaz galdu zuen maila eta zaleen aurrean izango du orain igoera lortzeko aukera. Asteburu horretan 24 talde lehiatuko dira lauko sei taldetan, eta horietako bakoitzean lehen postua eskuratzen duten sei taldeak igoko dira mailaz.



Erreleboa eskatu du C.D. Elgoibarko zuzendaritzak

Club Deportivo Elgoibar kirol taldeko zuzendaritzak gehienez ere urte bukaerara arte jarraituko du. Hala jakinarazi zien bazkideei apirilaren 11n egin zuten ezohiko batzarrean. "Zuzendaritza talde berri bat agertu arte jarraituko dugu, baina prest dagoen inor ez bada azaltzen, abenduan bagoaz", adierazi dute. 2016tik Club Deportivo Elgoibar taldea gidatu duen zuzendaritza batzordeak 2020. urteko otsailean ere eman zuen uzteko asmoen

berri, baina pandemia etorri zen handik gutxira, eta aldaketetarako sasoi onena ez zelakoan jarraitzea erabaki zuten. Jon Basurto buru duen zuzendaritzak berriro mahai gainean jarri du erreleboaren beharra. "Duela 6 urte hartu genuen C.D. Elgoibar kudeatzeko erantzunkizuna. Lehenik Antton Iranzo izan zen gure taldearen buru, eta hurrengo urteetan ni, Jon Basurto, izan naiz taldearen buru. Sei urte zoragarri egin ditugu, eta ezarri genituen helburu nagusienak edo gehienak bete ditugu", azaldu du kirol taldeko presidentek. Datorren abenduan, Gabonetan egin ohi duten erifaren zozketa egin eta gero, zuzendaritza honi erreleboa hartzeko talderik agertu ezean, amaitzat emango dute euren jarduna. "Entrenatzaileei eta klubeko beharginei ordaintzeko egongo gara, baita kuotak kobratu eta jaso behar ditugun dirulaguntzak kudeatzeko ere, baina horiek izango dira gure gain hartuko genituzkeen lan bakarrak", zehaztu dute. Euren asmoen berri ahalik eta azkarren ematearen arrazoia zuzendaritza talde berriari lanak erraztea dela ere azaldu dute. Erreleboa emango dien taldeari laguntzeko prestutasun osoa dutela dio Basurtok. "Klubean 475 jokalaririk ditugu eta horien gurasoak ia 1.000 izango dira. Horietako batzuek prest badaude C.D. Elgoibar kudeatzeko jar daitezela gurekin harremanetan, eta ahal dugun guztian lagunduko diegu".





itegi@mek-elgoibar.es
Tel. 943 746 019

www.meka-elgoibar.net

HEZKUNTZA ESKAINNTZA 2022/23

ATE IREKIAK

MAIATZAK 5 eta 6

* Eman izena web orrian

AURREMATRIKULA

MAIATZAK 9tik 27ra

Informazio gehiago:
www.meka-elgoibar.net



GOI MAILAKO ZIKLOA

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
- METAL ERABILTZEAK
- GIZARTEZATZA
- GEMERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA
- HAUR HEZKUNTZA
- DIETETIKA
- AUTOMOTZIOA

ERDI MAILAKO ZIKLOA

- ADMINISTRAZIO KUDERAKETA
- SOLDADURA ETA GALARAGINTZA
- MENDI-KOTASUN EGOKERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA
- ENJAINZAREN LAGUNTZA
- MAKINERYAREN ELEKTROMEKANIKA
- KARROZERIA
- IBILGAILU AUTOMOBILEN ELEKTROMEKANIKA

ESPEZIALIZAZIO KURTSOA

- IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HERRIDIOEN MANTENTIA

MEKA HUSIZURI ERAKINA
Alegre 11, 48011 Elgoibar, Bizkaia

MEGAZENTZU ERAKINA
Alegre 11, 48011 Elgoibar, Bizkaia

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Berehala hasteko prest. ☎ 632 415 374

Garbiketa lanak egiteko, sukaldean laguntzeko edo zaintza lanetarako prest nago. Eskarmentu handia daukat, eta elikagaiak manipulatzeko titulua ere bai. ☎ 643 427 770

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 947 065

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 942 123

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Eusko Jaurlaritzako titulazioa daukat. ☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Goizez, orduka. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere lan egiteko prest nago. ☎ 602 342 429

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Asteburuetan ere lan egiteko prest nago. ☎ 662 460 266

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. ☎ 631 218 724

Edozein lan egiteko prest nago. Paperak legez ditut. ☎ 631 677 339

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, Elgoibarren eta Eibarren. ☎ 688 735 551

GARAJEAK.....
Garaje plaza salgai edo alokairuan, Kalamua kalean. ☎ 650 043 495

BESTELAKOAK.....
Txakurkumeak oparitzen dira. ☎ 688 642 761

OSPAKIZUNAK.....
1957. urtean jaiotakoen kinto bazkaria maiatzaren 28an, Sigma jatetxean. Argazkirako, 14:00etan Plaza Handian. Izena emateko azken eguna, maiatzak 25. 55€ (ES88 2095 5036 55 1074745950)

1961. urtean jaiotakoek 61. urteurrena ospatzeko bazkaria egingo dute maiatzaren 21ean, Sigma jatetxean. Interesatuak 61 euro sartu behar dituzte kontu korrante honetan: ES59 3035 0007 21 0071141949. Izen abizenak zehaztu behar dira ordainketa egiterakoan.

Duela bi urte pandemiagatik egin ezin izan zuten 50. urteurreneko bazkaria egingo dute 1970ean jaiotakoek ekainaren 4an. Sigma jatetxean izango da. Interesatuak 70 euro ordaindu behar dituzte ES55 2080 3629 1630 4002 8386 (Bankoa, ahora Abanca)

1972an jaiotakoen bazkaria, ekainaren 18an, Sigma jatetxean. Izena emateko 80 euro ordaindu behar dira, maiatzaren 31rako: ES40 3035 0007 26 0071134189 (Laboral Kutxa). Ordainzerakoan izen-abizenak zehaztu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Eskola Administrazioalderen Burakako Kontseilua

ROSA Ma PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean debekatu egin nahi dute aparkatzeko gune bat bi ibilgailuk erabiltzea, nahiz eta mugak ez gaudituz. Udal-ordenantzek ez dute espreski debekatzen, ezta komunitate arauak ere. Horietan aparkatzeko toki kopurua baino ez da zehazten. Jakin nahi nuke legezkoa al den leku bakoitzeko bi ibilgailu aparkatzea ala debekatu al daitekeen.

Nire ustez, legea berriro zenetik, irizpideak ez dira aldatu, nahiz eta lege honen harira iritzia bat baino gehiago egon. Jabe bakar batena den aparkaleku batean bi ibilgailu edo gehiago aparkatzeari buruz debekuak ezarrita egon daitezke estatutuetan edo komunitateko titulu osagarrietan. Horietan soilik garaje hitza aipatu eta ibilgailu kopururik zehaztu ezean, pentsatu behar da, aparkatu daitezkeela toki berean automobil eta moto bat, beti ere maniobretan beste jabeek trazarik egin ezean. Ezingo litzateke horrelako mugarik ezarri barne-erregimeneko araudi batean. Izan ere, horien funtzioa zera da: bizikidetzaren zehaztasunak eta zerbitzu zein gauza komun erabilera egokia arautzea. Beraz, jabe bakarrarena den gune bati mugak jaretzea hain gai delikatua izanik, ezin da bide honetatik arautu.

Ondorioa: Jabeen batzordeak erabilera hori debekatuz gehiago akordioa lortzeko ez luke baliorik izango. Akordio hori baliagarria litzateke titulu osagarriak edo estatutuak aldatzeko legeak ezarritako gehiengoa betez gero.

ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Jon**, apirilaren 16an 4 urte bete zenituelako. Muxu asko etzekoen partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Marfin**, asteazkenean 5 urte bete zenituelako. Amama Axun eta familiako guztien partez.



Zorionak, **Prinzesa**, Elgoibarko zure familiakoen partetik. Asko maite zaitugu.



Zorionak, amama **Pantxike!** 96 urte potolo! Patxo handi bat familiakoz guztixen eta bereziki, Nuria, Leire, Mailalen eta Sararen partez.



Zorionak, **Irati** asteartean 9 urte bete zenituelako! Aitatxo, amatxo eta Maddiren partez. Asko maite zaitugu!




Zorionak, **Oier** txapeldun! Apirilaren 12an 7 urte bete zenituen! Infinito eta buelta maite zaitugu. Milaka muxu etzeko guztien partez.



Zorionak, **bikote!** 11 eta 8 urte! Zetako azkar pasatzen den denbora. Pila bat maite zaituztegu.



Zorionak, **Prinzesa**, 7 urte bete dituzulako! Muxu potolo bat etzeko guztien partez.



Urte bat zurekin bizitza are eta ilusio gehiagorekin bizitzen! Maite zaitugu, **Aia**. Zorionak!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



heziketa zikloak

Erdi eta Goi mailako zikloak

Espezializazioak

Elgoibar

Maiatzak 7

11:00etan

Informazio saioa

Hartu lekua!



29 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Antzerki familiarra: 'Kuikui'. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek aurkeztuko dute, Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: herrikoantzokia.eus

18:00 Hitzaldia: Elikadura nahasmen-duak eta lodifobia. Andrea Osorok eskainiko du, gaztelaniaz. Lilan.

30 ZAPATUA

9:00 Hileko azken zapatuko feria. Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan. Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa.

12:00 Gotzon Garateren omenezko meza, Parrokian. Ondoren, Gotzon Garateren jaiotetxean koplak abestuko dituzte, eta segidan, bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

17:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira. Mari, Tartalo, Basandere eta Basajaun buruhandien aurkezpena. Kalebarren plazan hasita.

18:00 EME Eguna. Elgoibarko Musika-rien Elkarteak antolatuta, kontzertuak antolatu dituzte Maalako parkean.

1 DOMEKA

11:00 Gurutze Santuaren oroimeneko meza. San Bartolome parrokian.

3 MARTITZENA

18:00 Tailerra: energia berriztagarriak etxean. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

19:00 Hitzaldia: 'Zaldibar argitu: bi urteren ostean, zer?' Hizlariak: Janire Lazkano eta Ahoztar Zelaieta. EHBilduk antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldigelan.

4 EGUAZTENA

17:00-20:00 Manga marrazteko tailerra. Sara Basurto elgoibartarrak emango du, Gotzon Garate udal liburutegian.

19:00 Hitzaldia: Zentral eolikoa Karakaten?. Karakaten eraiki nahi duten zentral eolikoari buruzko hitzaldia antolatu du Karakate Bizirik Elgoibar taldeak. Kultur Etxeko hitzaldigelan.

5 EGUENA

18:30 Hitzaldia: Zainketa aringarriak. Bihotzetik elkartearen eskutik, Kultur Etxeko hitzaldigelan.

6 BARIKUA

18:40 Ipuin kontaketa saioa. Oihana Irusta eta Mari Seara Debako ipuin kontalariak eta Mendaroko Neska Ausarten Klubekoak ariko dira. Udal liburutegian. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

19:00 Zine Foruma: 'El inconveniente'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lila Emakumeen Etxean.

Zinea (Herriko Antzokian)

'El acontecimiento'

30 zapatua: 19:00 / 22:15

1 domeka: 19:00

2 astelehena: 21:00

'Zinegoak: Miscere' (Jairo Berbel)

4 eguaztena: 21:00

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

TUPPER SOLIDARIOA

APIRILAK 30, EIBARKO ERREBAL PLAZAN (14:00-15:00)

Zaporeak gobernuz kanpoko erakundeak sustatuta, Lesboreko errefuxiatuentzako janari bilketa solidarioa egin dute asteen Debabarrenean, eta bihar emango diote azkena kanpainari, Eibarren egingo duten Tupper solidarioa ekimenarekin. 5 euroan jakiz betetako tupper-rrak salduko dituzte Errebal Plazan, eta horren harira beste zenbait ekin-tza ere antolatu dituzte.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
29 BARIKUA	30 ZAPATUA	1 DOMEKA	2 ASTELEHENA	3 MARTITZENA	4 EGUAZTENA	5 EGUENA	6 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gaez: 22:00-09:00
Esther Mendiñueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106



*Jeronimo
Bollar Mendiolea*

2022ko apirilaren 21ean hil zen,
95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak.

*Disfrutatu izan duzu bizitzaz; zure poza bilobak eta birbilobak ziren.
Esker oneko izan zara beti eta eguzkia itzaltzen den bezala joan zara.
Beti bihotzean eramango zaitugu.*

Etxekoak



Jaione Astigarraga Sudupe

2022 apirilaren 23an hil zen, 53 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jaione Astigarraga Sudupe

2022ko apirilaren 23an hil zen, 53 urte zituela.

*Zaila da onartzea inoiz ez zaitugula berriro ikusiko,
hala ere, bizi garen bitartean,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Zure kuadrilla



III. URTEURRENA

Araceli Uria Retolaza

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Familiakoak





Heiko
Romera
Etxaniz,
4 urte,
Elgoibar

"Erraldoia"



Oihan
Egaña
Calleja,
5 urte,
Elgoibar

"Gure Mintxeta"





II. URTEURRENA

Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

***Duela bi urte joan zinen
apal eta isilpean
zurekiko dugun maitasuna
beti gure bihotzean***

Etxekoak



III. URTEURRENA

Gloria Aranguren Urkidi

"Beraseta"

2019ko apirilaren 28an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 1ean, 11:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Hiru urte pasa dira,
baina egunero gogoratzen gara.
Jonen ondoan irribarretsu
hantxe egongo zara.***

Etxekoak



V. URTEURRENA

Jose Ignacio Sarasua Garate

***Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



HARITZ



Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



Xixilion, z/g. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)



Hileta-zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Espainiako Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 747 386

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete · Santurtzi · Leioa ·
Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda